

# Finantzaketa eta gastu publikoa kulturan EAEn **2018**



KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA  
DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



Kulturaren  
Euskal Behatokia  
Observatorio Vasco  
de la Cultura

# Finantzaketa eta gastu publikoa kulturan EAEn 2018

**Emitzen txostena**



**Kulturaren  
Euskal Behatokia**  
Observatorio Vasco  
de la Cultura



KULTURA ETA HEZKUNTZA  
POLITIKA SAILA  
DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

**Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren *Bibliotekak* sarearen katalogoan aurki daiteke: <http://www.bibliotekak.euskadi.eus/WebOpac>

Argitaraldia: 2020 azaroa

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Kultura eta Hizkuntza Politika Saila

Internet:  
[www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus)

Argitaratzailea:  
Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco  
C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Diseinua eta maketazioa:  
EPS Comunicación

# Aurkibidea

|  |    |
|--|----|
| <b>Aurkezpena</b> .....  | 5  |
| <b>1. Kulturako gastuaren bilakaera 2008-2018</b> .....                        | 7  |
| 1.1. Kulturako gastu likidatua .....   | 7  |
| 1.2. Kultura-ahalegina .....   | 8  |
| 1.3. Gastuaren izaera ekonomikoa .....   | 10 |
| 1.4. Kultura-gastua, kultura-esparruen arabera .....                           | 13 |
| <b>2. Gastu kontsolidatua administrazio-mailen arabera</b> .....               | 15 |
| 2.1. Transferentzien fluxuak administrazio-mailen arabera .....                | 15 |
| 2.1.1. Lurraldekako ikuspegia .....  | 18 |
| 2.1.2. Udalen tamainaren araberako ikuspegia .....                             | 20 |
| <b>3. EAEko gastu kontsolidatua</b> .....                                      | 23 |
| 3.1. Transferentzien fluxuak administrazio-mailen artean .....                 | 23 |
| 3.3. Helmugan kontsolidatutako gastua .....                                    | 26 |
| 3.3.1. Kultura-sektoreak .....   | 26 |
| 3.3.1.1. Ondarea, museoak, artxiboak eta liburutegiak .....                    | 29 |
| 3.3.1.2. Musika, antzerkia eta dantza, ikusizko arteak eta bertsolaritza ..... | 32 |
| 3.3.1.3. Zinema eta ikus-entzunezkoak eta literatura eta argitalpena .....     | 34 |
| 3.3.1.4. Kultura-ekintza eta jaiak eta herri-kultura .....                     | 35 |
| <b>4. Langile-gastuak eta kultura-enplegua</b> .....                           | 37 |
| <b>5. Komunikabideak</b> .....   | 42 |
| <b>6. Laburpen gisa</b> .....  | 43 |
| <b>ERANSKINA. Azterketaren metodologia</b> .....                               | 47 |

# Aurkezpena

Kulturaren Euskal Behatokiak Euskal Autonomia Erkidegoko *Kulturako finantzaketa eta gastu publikoaren estatistikaren* seigarren edizioaren emaitzak aurkezten ditu, 2018. urteari dagozkion datuekin. Bi urtez behin egiten den eragiketa bat da, eta EAEko administrazio publiko guztien datu ekonomikoak eskaintzen ditu. Helburutzat du kultura-arloko finantzaketaren eta gastu publikoaren ezaugarriak eta banaketa ezagutzea. Xehetasunez aztertuz gero Eusko Jaurlaritzak, foru-aldundiek eta udalek, eta haien mendeko erakunde autonomoek, sozietate publikoek eta fundazioek kulturara bideratutako aurrekontuak, agerian geratuko dira bai kulturaren egindako gastu publikoaren izaera ekonomikoa, bai gastu hori zein kultura-sektoretara bideratzen den ere.

Emaitzen azterketa eta txostenaren lanketa-prozesu betearen, Covid-19a agertu zen bat-batean. Hura termino ekonomikoetan izaten ari den eragina nabarmen islatuko da estatistikaren hurrengo edizioan. Horrenbestez, txosten honek jasotzen dituen datuak pandemia aurreko egoeraren isla izango dira, eta erreferentzia gisa balioko dute EAEko kulturaren egin den gastuaren nondik norakoa ezagutzeko orduan, dagoeneko atzean utzi dugun errealitate batean.

2008-2018 aldiko bilakaera-datuak aurkezten dira, bai eta 2010-2018 aldiko gastu kontsolidatuarenak ere. Metodologiaren ikuspuntutik, bermatuta dago datuen kalitatearen maila oso zehatza, kontuan hartzen bada galdetegiaren xehetasuna eta kontsolidazio bikoitz bidez gauzatzen den arazketa-maila. 148 udalen eta 50 erakunde autonomo, sozietate publiko eta fundazioaren aurrekontuak aztertzen dira, baita hiru foru-aldundienak eta Eusko Jaurlaritzarenak ere.

Oraingoan, txosten sintetikoago bat aurkeztu da, bilakaeraren funtsezko datuak eta 2018ko edizioari dagozkionak aurkezten dituena, hiru atal handitan banatuta:

- ◆ Kulturako gastu likidatuaren bilakaera
- ◆ Gastu kontsolidatua administrazio-mailen arabera
- ◆ EAEko gastu kontsolidatua

Txostenarekin batera doa taulen eranskin bat, datuen banakapen-maila ahalik eta handienarekin, ondoren aurkezten den analisi-egoera orokorra osatzen duena.

Behatokiak eskerrak eman nahi dizkie parte hartu duten erakunde guztiei, beren datuak biltzeko eta eskaintzeko egin duten ahaleginagatik. Era berean, gonbita luzatzen die kultura-eragileei, informazio-iturri honen emaitzak ezagutu ditzaten, funtsezkoak dira-eta EAEko kultura-politikak aztertzeko.

## Fitxa teknikoa

|   |   |
|---|---|
| <b>Eragiketaren izena</b>                 | Estatistika: finantzaketa eta gastu publikoa kulturean. Euskal Autonomia Erkidegoa  |
| <b>Eragiketaren estatusa</b>              | Kultura eta Hizkuntza Politikako Sailak garatua. Eustatek ofizialdua  |
| <b>Aldizkakotasuna</b>                    | Bi urtez behin  |
| <b>Informazio bilketa</b>                 | Zuzeneko informazioa biltzeko prozesua, fitxa egituratu baten bidez (paperezko euskarrian eta euskarri informatikoan). Aholkularitza eta berariazko laguntza teknikoa ere eskaini dira, erakunde bakoitzeko informatzaileen ezaugarri eta beharrianetara egokituak, zenbait teknikatako mix baten bitartez. |
| <b>Informazioa biltzeko aldia</b>         | 2019ko uztaila-abendua  |
| <b>Informazioaren erreferentzia-urtea</b> | 2018  |
| <b>Erantzun-maila</b>                     | Erakundeen % 100  |

## Azterlanaren irismena

Estatistika honek azterketa-oinarri hauek hartu ditu barnean:

- ◆ Errola-izaerako landa-lan bat, hauek hartzen dituen: Eusko Jaurlaritza, hiru foru-aldundiak eta EAEko 5.000 biztanletik gorako udalerrietako udalak (71). Azterketa egiteko, hiru tartetan estratifikatu dira udalak: 5.000 biztanletik 20.000ra artekoak, 20.000 biztanletik gorakoak eta hiru hiriburuak.
- ◆ Landa-lan bat, 5.000 biztanle baino gutxiago dituzten udalerrietako toki-administrazioen lagin adierazgarri bat oinarri hartuta (77 udal) egina; 5.000 biztanletik beherako udalerrien % 42,8 dira horiek, eta estratu horretan sartzen diren udalerrietako biztanleen % 46,1 bizi dira aipatutako udalerririk horietan.
- ◆ Errola-izaerako landa-lan bat, administrazio baten edo batzuen mendeko, edo haiek % 100ean partaidetutako erakunde autonomo, sozietate publiko eta fundazioei egina. Multzo honetan sartu dira partaidetza publikodun erakundeak baldin eta, 2018an, administrazioaren aldetik 500.000 eurotik gorako transferentziak jaso badituzte (guztira 50 erakunde). Azterketan ez dira sartzen beren ekarpen publikoak diru-sarrera guztien % 50etik behera dituzten fundazioak edo sozietate publikoak.

Datuen bilketa eta azterketa ez da kultura-sailetara edo -arloetara mugatzen; aitzitik, beste esparru edo alor batzuek kultura-arloko gastu bat egitera bideratutako partiden inguruko informazioa ere eskuratu eta erantsi da.

**Eranskinen** kontsulta daitezke aztertutako kontzeptuen definizioak, bai eta aplikatu den kontsolidazio edo bateratze bikoitzeko prozesua ere.


# 1. Kulturako gastuaren bilakaera 2008-2018

## 1.1. Kulturako gastu likidatua

2018an, 388.550.604 eurokoa izan zen kulturaren likidatutako gastu osoa, hau da, Eusko Jaurlaritzaren, foru-aldundien eta udalen aurrekontuen batura. Horrek esan nahi du ia ez dagoela alderik 2016koarekin (% 0,2 txikiagoa), baina bai 2008koarekin (% 17,7 txikiagoa). Krisi ekonomikoak eragin nabarmena izan zuen foru-aldundietan eta udaletan, eta azken ekitaldietan egonkortzeko joera izan arren, kultura-erloto aurrekontuak ez dira itzuli krisiaren aurreko zifretara.

Kulturako gastuaren bolumen handiena udaletan egiten da: gastu osoaren % 62,0, 2018an (240,9 milioi euro). Udalen ondoren, foru-aldundiak egongo lirateke (% 20,2), 78,5 milioi euroko gastuarekin. Azkenik, Eusko Jaurlaritzak izango genuke (kulturako gastu likidatuaren % 17,8), 69,1 milioirekin.

### 1. irudia. Kulturako gastu likidatua, erakunde motaren arabera (eurotan). 2008-2018.



| Aldaketa  | Eusko Jaurlaritzak | Foru-aldundiak | Udalak   |
|-----------|--------------------|----------------|----------|
| 2008-2018 | ▲ % 4,5            | ▼ % 25,0       | ▼ % 20,1 |
| 2016-2018 | ▲ % 2,2            | ▼ % 0,5        | ▼ % 0,7  |

2018ko datuak aztertutako aldiarekin konparatuz gero, hau ikus daiteke: 2008tik, foru-aldundiak izan dira jaitsierarik handiena izan duten administrazio publikoak (gastuaren % 25,0 gutxiago). Bestalde, udalek egindako gastua 301,4 milioi eurotik (2008an) 240,9 milioi eurora jaitsi da, % 20,1 gutxiago. Hala ere, Jaurlaritzaren gastua % 4,5 igo da 2008ko datuekin alderatuta.

2016arekin alderatuta, gastuaren joerak behera egin du zertxobait foru-aldundietan eta udaletan, eta zifrek bere horretan iraun dute, ia, 2016tik 2018ra. Eusko Jaurlaritzak, 2014ko zifrak ez iritsi arren (kulturako gastu likidatua 76,8 milioi euro izan zen orduan), 2016an baino % 2,2 gastu handiagoa egin du, eta hark egindako gastua 67,7 milioi eurotik 69,1 milioi eurora igo da.

## 1.2. Kultura-ahalegina

Jakina denez, udalak dira kultura-ahalegin handiena egiten duten administrazio-erakundeak. 2018an, udalen kultura-gastuak beren gastu-aurrekontu osoaren % 8,1 egin zuen. Kultura-gastuaren pisu erlatiboa, guztizko aurrekontuarekin alderatuta, % 2,9 izan zen foru-aldundietan, eta % 0,6 Eusko Jaurlaritzan.

Azpimarratu behar da administrazioek egindako ahalegina murriztu egin dela aztertutako aldiaren. 2008an, kultura-gastuaren pisua % 0,7i izan zen Eusko Jaurlaritzan, % 3,9 foru-aldundietan eta % 9,3 udaletan.

Aurrekontua termino absolutuetan aztertuz gero, ikusiko dugu azken hamar urteetako aldakuntza beheranzkoa izan dela udaletan eta foru-aldundietan, hala kulturako gastuan nola aurrekontu osoan. Esan behar da kultura-gastuaren jaitsiera aurrekontu osoarena baino handiagoa dela. Udaletan, kulturako aurrekontua % 20,1 jaitsi da, eta aurrekontu osoa, berriz, % 8,7. Foru-aldundietan, aurrekontu osoa % 6,6 murriztu da, eta kultura-arlokoa % 25,0. Eusko Jaurlaritzan, aldaketa goranzkoa izan da; kulturaren % 2,2 igo da aurrekontua, eta aurrekontu orokorra, berriz % 21,5.

Kontuan izan behar da erakunde bakoitzak bere gastu-egitura duela, bakoitzaren eskumen-betebeharren eta lehentasun politikoaren arabera.


Eusko Jaurlaritzaren kasuan, Hezkuntzara eta Osasunera bideratzen da gastu gehien; horrenbestez, izaera sozialeko ondasun publikoen ekoizpena lehentasunezkoa da politikei dagokienez eta, beraz, aurrekontuei dagokienez. Horien ondoren, herritarren segurtasuna eta babes zibila egongo lirateke, eta garraioarekin eta komunikazioekin lotutako oinarrizko azpiegiturak ere pisu handia dute. Beste politika batzuek ere laguntza handia jasotzen dute, hala nola enplegu-politikek eta gizarte-babesarekin lotutakoek, baita ekoizpen-sektoreetara bideratutakoek ere (industria, lehen sektorea eta zerbitzuak). Horregatik, kulturak aurrekontuetan duen pisu erlatiboa oso txikia da (% 0,6).

Foru-aldundien kasuan, diru-sarreraren 10 eurotik 8 inguru erakundearen konpromisoei erantzuteko erabiltzen dituzte (Jaurlaritzari egindako ekarpenak, kupoak eta udal-finantzaketa). Hori dela-eta, beren gastu-aurrekontua oso mugatua da. Gastu horien artean, honako hauek nabarmendu behar dira: oinarrizko azpiegiturak eta garraioak, garapen ekonomikoa eta lurralde-oreka, eta gizarte-babesa eta -sustapena. Partidak esanguratsuak izan arren, kultura lehentasunezko arlo horien atzean kokatuko litzateke.

Udalei dagokienez, gastu nagusiak komunitatearen ongizatean, etxebizitzan eta hirigintzan, segurtasunean eta mugikortasunean oinarrizko zerbitzu publikoak ematera daude bideratuta. Zerbitzu horiek, ingurumenarekin batera, gastuaren 10etik 4 osatzen dute; gero, lehentasunezko ondasun publikoen ekoizpena izango genuke, eta horien artean, kultura nabarmendu behar da; hirugarrenik, gizarte-babesa eta -sustapena izango genituzke, jarduteko lehentasunen artean.




**2. irudia.** Kulturako gastu likidatuaren eta guztizko aurrekontuen bilakaera (Oinarrizko indizea 100 = 2008), eta kultura-ahalegina (%), administrazio-mailaren arabera. **2008-2018.**



Aztertutako 2016-2018 serieko azken aldiari dagokionez, joera aurrez aurreztutakoaren antzekoa da (2008-2018). Alde bakarra gorakaden eta/edo jaitsieren nolakotasuna da. Ildo horretatik, udalen egoera nabarmendu behar da: 2016tik, aurrekontu osoa % 5,3 hazi da, baina kulturako aurrekontua % 0,7 jaitsi.

**3. irudia.** Kulturako gastu likidatuaren pisua aurrekontu guztiei dagokienez, biztanle kopuruaren arabera (%), **2008-2018**.




Udalen kultura-ahalegina zehatzago aztertuz gero, ikus dezakegu udal txikienek (5.000 biztanle baino gutxiago dituztenek) eta hiriburuak izan dutela beherakada handiena. Hiriburuen kasuan, kulturako gastu likidatuaren pisua % 7,2 da 2018ko aurrekontu osoarekiko, eta batez besteko orokorraren azpitik dago (% 8,1). Hala, egin den kultura-ahalegina 2016an baino % 12,2 txikiagoa da (% 8,6), eta 2008an baino % 30,7 txikiagoa (% 9,3).

5.000 biztanletik beherako udalerrak kulturako batez besteko gastuaren gaintik daude (% 8,3); dena den, 2016ko kultura-gastua baino % 7,0 txikiagoa da, aurrekontu osoa % 7,2 igo arren. 2008ko datuekin alderatuta, datuek erakusten dute udal horiek kulturaren egindako gastua % 41,4 jaitسي dela eta aurrekontu osoa % 27,9 jaitسي dela.

### 1.3. Gastuaren izaera ekonomikoa

Kulturako gastu likidatua izaera ekonomikoaren arabera aztertuz gero, gastu arrunta nagusitzen da administrazioetan: gastuaren 10 eurotik 8 eta 9 euro artean.

**4. irudia.** Kulturako gastu likidatua, gastuaren izaera ekonomikoaren eta administrazio-mailen arabera (%). **2008-2018.**



Udaletan pisu handiagoa du gastu arruntak. 2018an, likidatutako gastuaren % 92,7 da; bestalde, kapital-gastuaren pisua % 7,1 da eta finantza-aktibo eta -pasiboena, berriz, % 0,2. 2016. urtearekin alderatuta, gastu arrunta % 4,5 igo da, eta beraz, 213,8 milioi eurotik 223,3 milioi eurora igo da 2018an.

2008. urtearekin alderatuta, termino absolutuetan % 2,8 jaitsi da, eta 2008an 229,7 milioi euroko gastu arrunta izatetik, 2018an 223,3 milioi euro izatera igaro da. Hala ere, aldatu egin da gastu osoarekiko duen pisua: 2008an, guztizkoaren % 76,2 zen, eta 2018an, % 92,7. Hori inbertsioen beherakada handiarekin dago lotuta; izan ere, 2008an, 71,5 milioi euro jo zuten (% 23,7), eta 2018an, 17,2 milioi euro (% 7,1), hau da, % 76,0 gutxiago.

Aldundietan ere antzekoa da joera. 2018an, gastuaren 10 eurotik 8 gastu arruntak ziren; 2008an, ordea, 10etik 6. Aldaketa hori, udalen kasuan bezala, inbertsioen jaitsierarekin dago lotuta, 2008an baino % 65,3 kapital-gastu txikiagoa egin baita (37,4 milioi euro 2008an eta 13,0 milioi euro 2018an).

Eusko Jaurlaritzak zifra egonkorragoei eutsi die. Udalen eta aldundien kasuan bezala, gasturik handiena gastu arruntei lotzen zaie (10 eurotik 8). Kasu honetan, 2008arekiko aldakuntza txikiagoa da. Gastu arrunta % 17,7 igo da 2008ko datuekin alderatuta (47,7 milioi eurotik 56,1 milioi eurora) eta kapital-gastua, berriz, % 16,6 jaitsi da.

### Gastu arruntaren xehetasunak


Ikusi den moduan, kulturako gastu likidatuaren sailkapen ekonomikoan gastu arrunta da nagusi. Administrazio publikoek aurrekontuko 10 eurotik 8-9 euro bideratzen dituzte gastu arruntera. Haren pisua dela eta, xehetasunez aztertu behar da.

Lehenik eta behin, kontuan izan behar dugu gastu arruntean sartzen direla langile-gastuak, ondasun eta zerbitzuen gastuak, finantza-gastuak eta transferentzia arruntak. Gastu arruntaren banaketa kapitulu ekonomikoen arabera aztertuz gero, transferentzia arruntak nabarmentzen dira, batez ere Eusko Jaurlaritzan, gastu arruntaren % 82,0 baitira. Foru-aldundietan, transferentziak gastu arruntaren % 50,0 baino gehiago dira.


Dena den, udaletan gastuaren % 50,0 baino gutxiago dira; gainerakoa langile-gastuetara (% 24,4) eta ondasun eta zerbitzuen gastu arruntera (% 32,9) bideratzen da.

Ildo horretatik, nabarmentzekoa da udalek kultura-zerbitzuak ematera bideratzen dituztela beren baliabide arruntak, eta horretarako langileak eta ekipamendu- eta kontratazio-gastuak behar direla; aldundiek eta, neurri handiagoan, Jaurlaritzak, berriz, sektore publikora eta pribatura egindako transferentziak lehenesten dituzte.

### 5. irudia. Kulturako gastu arrunt likidatua, kapitulu ekonomikoaren eta administrazio-mailen arabera. 2018.



**6. irudia.** Ondasun eta zerbitzuetan egindako gastu arruntaren banaketa, zerbitzu eta jarduera kulturalen tipologiaren eta erakunde motaren arabera. **2018.**



Erakunde publikoek egindako gastu mota alderatuz gero, argi eta garbi ikus daiteke aldundiek eta udalek aurrekontuaren zati handi bat bideratzen dutela jarduerak programatzera eta kultura-zerbitzuak ematera; Jaurlaritzak, berriz, horniduretan, mantentze-lanetan eta bestelako zerbitzuetan egiten du aurrekontu-ahalegin handiena.

## 1.4. Kultura-gastua, kultura-esparruen arabera


2018an, Eusko Jaurlaritzak eta udalek Arte eta industrietara bideratu zituzten kulturako gastu likidatuaren 10 eurotik 6 (% 65,8 eta % 68,5, hurrenez hurren); foru-aldundiak, Ondarera (% 61,6), eta Jaurlaritzak, 10 eurotik 3 esparru horretara ere (% 32,4).

Eusko Jaurlaritzaren kulturako gastu likidatuaren 69,1 milioi eurotik 45,4 milioi arteetara eta industrietara bideratu ziren, eta beste 22,4, ondarera. 2008ko datuekin alderatuta, ondarean egindako gastua % 26,5 jaitsi da (8,1 milioi euro gutxiago), eta arteetan eta industrietan egindako gastua, berriz, % 32,1 igo da (2018an, 11,0 milioi euro gehiago 2008an baino).

Foru-aldundietan, kultura-arloen arabeko gastua bere horretan mantendu da, aztertutako seriean aldaketak izan arren. 2008arekin alderatuta, guztizko gastu likidatuaren % 25,0ko jaitsiera nabarmendu behar da; hori argi eta garbi islatzen da ondarean egindako gastuan. 10 eurotik 6 ondarean inbertitzen jarraitu arren, termino absolutuetan aurrekontu osoaren % 31,3ko jaitsiera izan da 2008arekin alderatuta.

Udalek ere 10 eurotik 6 inbertitzen dituzte arteetan eta industrietan, baina gainerakoen aldean, jaietan eta herri-kulturan egindako inbertsioengatik nabarmentzen dira (2018an egindako gastuaren % 11,6). Arte eta industrietako gastuaren goranzko joera azpimarratu behar da, eta gainerako kultura-esparruetako gastuaren beherakada txikia.

**7. irudia.** Kulturako gastu likidatua, kultura-esparruen eta administrazio-mailen arabera (%), 2008-2018.



## 2. Gastu kontsolidatua administrazio-mailen arabera

Kapitulu honetan, lehen kontsolidazio-prozesuaren emaitzak aurkezten dira, administrazio-maila bakoitzean egin dena; horri esker, Eusko Jaurlaritzak, foru-aldundiek eta udalek kulturaren egindako gastuaren irudi zehatza lortzen da, administrazio-maila bakoitzaren kudeaketa-eredua edo deszentralizazio-maila dena dela.

Kontsolidazio-prozesuaren lehenengo urratsa da identifikatzea zer transferentzia egin dien administrazio-maila bakoitzak bere mendeko edo partaidetzako erakunde autonomoei, sozietate publikoei eta fundazioei. Helburua da kontabilizazio bikoitzak saihestea eta hiru maila horietako kultura-gastu garbiaren emaitza aurkeztea: Eusko Jaurlaritza, foru-aldundiak eta udalak.

Hiru egoera gerta daitezke:


- ◆ Erakunde autonomoak: zer udalen mende dauden, harekiko integrazio globala egiten da.
- ◆ Erakunde bakar baten mendeko sozietate edo fundazio publikoak: integrazio global bat egiten da erakunde horrekin, hura Eusko Jaurlaritza, foru-aldundiak edo udal bat izan.
- ◆ Sozietate edo fundazio publikoak: erakunde batek baino gehiagok partaidetuta badaude juridikoki, bi egoera gerta daitezke.
  - Horietako baten diru-sarreraren ehunekoa % 60 baino handiagoa bada, integrazio globala egiten da erakunde horrekin.
  - Ehunekoa % 60 baino txikiagoa bada, erakunde parte-hartzaile bakoitzak jasotako transferentzien pisuarekiko integrazio proportzionala egiten da.

### 2.1. Transferentzien fluxuak administrazio-mailen arabera

2018an, administrazioek beren mendeko erakundeetara egindako transferentziak 119,8 milioi euro izan ziren.

Eusko Jaurlaritzak 22,3 milioi euro bideratu ditu partaidetza duen sozietate publiko eta fundazioetara. Foru-aldundiek 20,8 milioi euro transferitu dituzte mendeko edo partaidetutako erakundeetara. Aldiz, udalak dira transferentzia-fluxu handiena duten administrazioak, 76,8 milioi euro.

#### 8. irudia. Transferentzien fluxuak administrazio-mailen arabera. 2018.



## EUSKO JAURLARITZA: 22.276.582 €

| Lurraldea       | Eusko Jaurlaritzaren mendeko sozietate publikoak eta fundazioak   | Eusko Jaurlaritzaren partaidetza duten sozietate publikoak eta fundazioak  |
|-----------------|---|--|
| <b>Araba</b>    | <ul style="list-style-type: none"><li>◆ Euskal Herriko Gazte Orkestra (EGO)</li></ul>   | <ul style="list-style-type: none"><li>◆ Añanako Gatz Harana Fundazioa</li><li>◆ Arabako ARTIUM Fundazioa</li></ul>   |
| <b>Bizkaia</b>  | <ul style="list-style-type: none"><li>◆ Euskal Irrati Telebista</li></ul>   | <ul style="list-style-type: none"><li>◆ Bilboko Arte Ederren Museoa Fundazioa</li></ul>  |
| <b>Gipuzkoa</b> | <ul style="list-style-type: none"><li>◆ Euskadiko Orkestra SA</li><li>◆ Etxepare Euskal Institutua</li><li>◆ Euskadiko Filmatagia Fundazioa</li><li>◆ Mundubira 500: Elkano Fundazioa</li></ul> | <ul style="list-style-type: none"><li>◆ Cristobal Balenciaga Fundazioa</li><li>◆ Kultura garaikidearen nazioarteko zentroa (Tabakalera)</li><li>◆ Donostiako Musika Hamabostaldia</li><li>◆ Donostiako Nazioarteko Zinemaldia SA</li></ul> |

## FORU ALDUNDIAK: 20.755.485 €

| Lurraldea       | Foru-aldundien mendeko sozietate publikoak eta fundazioak                         | Foru-aldundien partaidetza duten sozietate publikoak eta fundazioak  |
|-----------------|---|--|
| <b>Araba</b>    | <ul style="list-style-type: none"><li>◆ Santa Maria Katedrala Fundazioa</li></ul> | <ul style="list-style-type: none"><li>◆ Añanako Gatz Harana Fundazioa</li><li>◆ Arabako ARTIUM Fundazioa</li></ul>   |
| <b>Bizkaia</b>  | <ul style="list-style-type: none"><li>◆ Bizkaikoa</li></ul>                       | <ul style="list-style-type: none"><li>◆ Juan Crisostomo de Arriaga Bilbao Orkestra Sinfonikoa fundazioa</li><li>◆ Bilboko Arte Ederren Museoa Fundazioa</li><li>◆ Gernikako Bakearen Museoa</li><li>◆ Bilbao Bizkaia Museoak SL</li></ul>  |
| <b>Gipuzkoa</b> | <ul style="list-style-type: none"><li>◆ Ekain Fundazioa</li></ul>                 | <ul style="list-style-type: none"><li>◆ Cristobal Balenciaga Fundazioa</li><li>◆ Kultura garaikidearen nazioarteko zentroa (Tabakalera)</li><li>◆ Donostiako Musika Hamabostaldia</li><li>◆ Donostiako Nazioarteko Zinemaldia SA</li></ul> |

## UDALAK: 76.809.013 €

| Lurraldea    | Foru-aldundien mendeko sozietate publikoak eta fundazioak  | Foru-aldundien partaidetza duten sozietate publikoak eta fundazioak        |
|--------------|--|--|
| <b>Araba</b> | <ul style="list-style-type: none"><li>◆ Urkabustaiz Musika Eskola</li><li>◆ Jose Uruñuela Udal Dantza Kontserbatorioa</li><li>◆ Luis Aranburu Musika Eskola</li><li>◆ Amurrioko Udal Musika Eskola</li></ul> | <ul style="list-style-type: none"><li>◆ Arabako ARTIUM Fundazioa</li></ul> |



| Lurraldea       | Foru-aldundien mendeko sozietate publikoak eta fundazioak   | Foru-aldundien partaidetza duten sozietate publikoak eta fundazioak   |
|-----------------|---|---|
| <b>Bizkaia</b>  | <ul style="list-style-type: none"> <li>◆ Ametx Erakunde Autonomoa</li> <li>◆ Barakaldo Antzokia SA</li> <li>◆ Basauriko Udal Kultur Etxea</li> <li>◆ Bilbaomusika</li> <li>◆ C.A.C. Arriaga Antzokia SA</li> <li>◆ Gizarte eta Kultura Garaikidearen Azkuna Zentroa SA</li> <li>◆ Arratiako Musika Eskola</li> <li>◆ Astarloa Kulturgintza (Durango)</li> <li>◆ Bartolome Ertzilla Musika Eskola</li> <li>◆ Galdakaoko Musika Jardueren Udaltgia, erakunde autonomoa</li> <li>◆ Getxoko «ANDRES ISASI» Musika Eskola</li> <li>◆ Getxoko Kultura Aretoa Tokiko Erakunde Autonomoa</li> <li>◆ Gernika-Lumoko Kultura Etxea fundazio publikoa</li> <li>◆ Soinu Atadia erakunde autonomoa</li> <li>◆ Serantes Kultur Aretoa erakunde autonomoa</li> </ul> | <ul style="list-style-type: none"> <li>◆ Juan Crisostomo de Arriaga Bilbao Orkestra Sinfonikoa fundazioa</li> <li>◆ Bilboko Arte Ederren Museoa Fundazioa</li> <li>◆ Gernikako Bakearen Museoa</li> <li>◆ Bilbao Bizkaia Museoa SL</li> </ul> |
| <b>Gipuzkoa</b> | <ul style="list-style-type: none"> <li>◆ Deba Musikal Patronatua</li> <li>◆ Juan Bautista Gisasola Musika Eskola (Eibar)</li> <li>◆ Errenteria Musikal Udal Musika Patronatua</li> <li>◆ Pasaia Musikala</li> <li>◆ Donostiako Musika eta Dantza Eskola</li> <li>◆ Donostia Kultura Enpresa Erakunde Publikoa</li> <li>◆ Kulturnieta SA</li> <li>◆ Ordiziako Herri Antzokia Administrazio Erakunde Autonomoa</li> <li>◆ Loinatz Musika Eskola</li> <li>◆ Debako Arte Eskola</li> </ul>  | <ul style="list-style-type: none"> <li>◆ Kultura garaikidearen nazioarteko zentroa (Tabakalera)</li> <li>◆ Donostiako Musika Hamabostaldia</li> <li>◆ Donostiako Nazioarteko Zinemaldia SA</li> </ul>   |


Zenbaki absolutuetan, Eusko Jaurlaritzak, 2018an, 77,5 milioi euro bideratu ditu kulturara (administrazioaren beraren gastuak eta haren mendeko edo partaidetzako sozietate publiko eta fundazioenak barne), hau da, 2016an baino % 5,6 gehiago eta 2010ean baino % 2,9 gutxiago.

Foru-aldundien eta haien mendeko sozietate publiko eta fundazioen gastu kontsolidatua, 2018an, 85,1 milioi euro izan da, 2016an baino % 2,8 txikiagoa (eta 2010ean baino % 11,7 txikiagoa).

Eta, amaitzeko, udalen, eta haien mendeko edo partaidetzako erakunde autonomo, sozietate publiko eta fundazioen gastu kontsolidatua 276,1 milioi euro izan da 2018an, hau da, 2016an baino % 2,4 gutxiago. Ildo horretatik, gastu-bolumena antzeratsu mantendu arren, 2010. urtetik izandako beheranzko joerara itzuli da (2010etik 2018ra, % 14,5 jaitsi da udalen gastua).

Jarraian, lortutako datuen azterketa aurkezten da, administrazio-mailen arabera: Eusko Jaurlaritza, foru-aldundiak eta udalak. Maila bakoitzean administrazioaren zuzeneko gastuak sartzen dira, bai eta haren mendeko erakunde autonomoenak, edota fundazio, enpresa publiko edo administrazioaren partaidetza duten beste entitateenak ere, baldin eta administrazio publikoen ekarpenak entitateen baliabideen % 50 gainditzen badu.

## 9. irudia. Kultura-gastua administrazio-mailen arabera (eurotan), 2010-2018.




| Aldaketa  | Eusko Jauriaritza | Foru-aldundiak | Udalak   |
|-----------|-------------------|----------------|----------|
| 2010-2018 | ▼ % 2,9           | ▼ % 11,7       | ▼ % 14,5 |
| 2016-2018 | ▲ % 5,6           | ▼ % 2,8        | ▼ % 2,4  |

### 2.1.1. Lurraldekako ikuspegia

Lurralde historikoaren araberako azterketak erakusten duenez, udalek egindako gastuaren ia % 50 Bizkaiari dagokio (135,2 milioi euro); % 41 Gipuzkoari (112,7 milioi euro), eta gastuaren % 10,0 Arabako udalerriei (28,2 milioi euro). 2016ko datuekin alderatuta, Arabako eta Bizkaiko udaletan igoera txiki bat egon da (% 5,5 eta % 1,3, hurrenez hurren). Kontrakoa gertatu da Gipuzkoan, bertan % 8,0 jaitsi baita (2012an eta 2016an izandako joera aldatu da, orduan igoerak egon baitziren, % 34,3koa, azken urte horretan).


## 10. irudia. Udalen kultura-gastua lurralde historikoaren arabera. 2010-2018.



Gastua izaera ekonomikoaren arabera aztertuz gero, hiru lurralde historikoetan ikusten da gastu arruntak hartzen duela kulturaren egindako gastuaren % 90,0. Araban, gastuaren % 96,6 izango litzateke (27,2 milioi euro); Bizkaian, % 95,4 (129 milioi euro); eta Gipuzkoan, % 86,7 (97,7 milioi euro).

Kapital-gastuei dagokienez, Gipuzkoa nabarmentzen da (% 13,0, hau da, 14,6 milioi euro); Bizkaian % 4,5 da (6,1 milioi euro) eta Araban, berriz, % 3,4 (milioi bat euro). Finantza-aktibo eta -pasiboak oso txikiak dira.

## 11. irudia. Udalen kultura-gastua izaera ekonomikoaren eta lurralde historikoaren arabera (%). 2018.




Udalek kultura-esparruen arabera egindako gastua aztertuz gero, arteak eta industriak nabarmentzen dira hiru lurralde historikoetan (gastuaren % 50,0 baino gehiago). Araban 17,6 milioi euro bideratzen dira, hau da, lurraldean kulturen egindako gastuaren % 62,4; Bizkaian, % 62,7, hau da, 84,8 milioi euro; eta Gipuzkoan, 62 milioi euro, lurraldeko kultura-gastu guztiaren % 55,0.

2016. urtearekin alderatuta, gorakada txiki bat ikus daiteke Bizkaian (% 4,7 gehiago) eta Araban (% 2,6 gehiago). 2018an, Gipuzkoan gastuaren % 23,6 gutxiago bideratu da arte eta industrietara, 2016. urtearekin alderatuta (19,2 milioi euro gutxiago). Kultura-ekintzako gastua murriztu izana da beherakada horren arrazoi nagusia (2016an, 43,4 milioi euro bideratu ziren, eta 2018an, berriz, 28,1 milioi euro), baita antzerkita eta dantzara bideratutako gastuaren beherakada ere (2016an 9,4 milioi euro bideratu ziren eta 2018an, aldiz, 5,1 milioi euro). Kontuan izan behar da jaitsiera zertxobait orekatu dela zineman eta ikus-entzunezkoetan egindako gastuaren igoerarekin: gastu hori 3,5 milioi eurokoa izan zen 2016an, eta 4,6 milioi eurokoa 2018an.

Hiru lurraldeetako udalen ondare-gastua gastu osoaren ia % 20,0 da. Araban eta Bizkaian, gastuaren % 19,0 bideratzen da (5,5 milioi euro eta 25,7 milioi euro, hurrenez hurren); eta Gipuzkoan, % 17,0 (19,2 milioi euro). 2016. urtearekin alderatuta, ondare-gastua handitu egin da Arabako eta Gipuzkoako udaletan, baina % 13,0 jaitsi da Bizkaikoetan (ondarean eta arkeologian egindako gastuaren jaitsiera handiaren eraginez batez ere, 2016an 5,7 milioi eurokoa izatetik 2018an 500 mila eurokoa izatera igaro baita).

Jaiek eta herri-kulturak kultura-gastu osoaren % 10,0 eta % 15,0 artean osatzen dute hiru lurraldeetan. Hala ere, zuzendaritza eta zerbitzu orokorretan egindako gastuan Gipuzkoa gailentzen da: Gipuzkoako udalek kultura-gastu osoaren % 17,0 bideratzen dute esparru horretara (19,2 milioi euro), 2016an baino % 61,5 gehiago.

## 12. irudia. Udalen kultura-gastua kultura-esparruaren eta lurralde historikoaren arabera (%). 2018.




### 2.1.2. Udalen tamainaren araberako ikuspegia

Kultura-gastua udalerrien tamainaren arabera aztertuz gero, hiriburuak dira nagusi; izan ere, udal mailako kultura-gastu osoaren % 40,0 haiena da (110,5 milioi euro). 20.000 biztanletik gorako udalerriek

% 29,0 gastu-ekarpena egiten dute, hau da, 76,9 milioi euro. 5.000 biztanletik 20.000 biztanlera arteko udalerriek % 22,0koa, 62,2 milioi euroko gastua; eta 5.000 biztanletik beherako udalerriek, 26,5 milioi eurokoa, gainerako % 10,0, alegia.

Arestian ikusi dugun moduan, gastu arrunta nagusitzen da hein handi batean; zenbat eta handiagoa izan biztanle kopurua, orduan eta txikiagoa da gastu mota horren pisua, eta zertxobait handitzen dira kapital-gastuak. 5.000 biztanletik beherako udalerrietan, gastu arruntak gastuaren % 95,2 dira, eta 20.000 biztanletik gorako udalerrietan, berriz, % 88,3.

**13. irudia.** Udalen kultura-gastua, gastuaren izaera ekonomikoaren eta udalerriaren dimentsioaren arabera (%). 2018.



2016ko datuekin alderatuta, gastua jaitsi egin da hiriburuetan eta 5.000 biztanletik beherako udalerrietan. Hiriburuetan, gastu arrunta % 8,4 jaitsi da (11,7 milioi eurotik 102,3 milioi eurora), transferentzia arrunten jaitsieragatik (11,6 milioi izan ziren 2016an eta 5,8 milioi 2018an) eta, neurri txikiagoan, ondasun eta zerbitzuetara bideratutako gastu arrunten jaitsieragatik (54,4 milioi eurotik 50,1 milioi eurora). Kapital-gastuak ere jaitsi dira, 10,8 milioi eurotik (2016an) 7,7 milioi eurora (2018an), hau da, % 28,3 gutxiago.


5.000 biztanletik beherako udalerrien kultura-gastua % 4,3 jaitsi da; 2016an 26,3 milioi euroko gastua egin zen, eta 2018an, berriz, 25,2 milioi eurokoa. Gainera, kapital-gastua % 36,7 jaitsi da, 2 milioi euro 2016an eta 1,3 milioi euro 2018an.

Dena den, 5.000 biztanletik 20.000 biztanlera arteko udalerrietan eta 20.000 biztanletik gorako udalerrietan, kultura-gastua handitu egin da 2016. urtearekin alderatuta. Gastu arruntak % 5,6 eta % 6,8 igo dira, hurrenez hurren. Kapital-gastuek ere gora egin dute. 20.000 biztanletik gorako udalerrietan, % 28,5eko igoera egon da (7 milioi eurotik 8,9 milioi eurora igaro da); eta 5.000 biztanletik 20.000 biztanlera arteko udalerrietan, 2016tik 2018ra izandako igoera % 21,8 izan da (3,1 milioi eurotik 3,7 milioi eurora).

Datu horiek ikusita, baina gastua zein kultura-esparrutara bideratu den kontuan hartuta, ikus daiteke arteak eta kultura-industriak nabarmentzen direla udalerririk guztietan, eta % 68,2ra iristen direla 20.000 biztanletik gorako udalerrietan (52,5 milioi euro, hiriburuak kontuan hartu gabe); portzentaje hori % 46,8koa da 5.000 biztanletik beherakoetan, tamaina horretako udalek pisu txikiagoa baitute kultura-esparru horretan (guztira, 12,4 milioi euro).

Arteetan eta industrietan egindako gastuaren ondoren, ondarean eta jaietan eta herri-kulturan egindako gastua izango genuke, baina kultura-esparru horien pisua aldatu egiten da udalerriaren tamainaren arabera: zenbat eta txikiagoa izan biztanle kopurua, orduan eta handiagoa da jaietan eta herri-kulturan egindako gastua (6,8 milioi euro 5.000 biztanletik beherako udalerrietan, hau da, kultura egindako gastuaren % 25,7); eta zenbat eta handiagoa izan biztanle kopurua, orduan eta handiagoa da ondarean egindako gastua (24,2 milioi euro hiriburuen kasuan, % 21,9, eta 12,3 milioi euro 20.000 biztanletik gorako udalerrietan, % 16,0).

**14 irudia.** Udalen kultura-gastua, kultura-esparruen eta udalerriaren neurrien arabera (%). 2018.



2016. urtearekin alderatuta, hiriburuetan % 80,0 igo dira zuzendaritzako eta zerbitzu orokorretako gastuak (8,9 milioi eurotik 16,1 milioi eurora); bestalde, arte eta industrietan egindako gastua % 27,3 jaitsi da (85 milioi eurotik 61,8 milioi eurora). Beherakada hori kultura-ekintzako gastuaren murrizketari dagokio batik bat (ia % 60,0 jaitsi da 2016ko datuekin alderatuta).

20.000 biztanletik gorako udalerrietan, arteetan eta industrietan izandako % 17,0ko igoera nabarmendu behar da; neurri handi batean, musikaren sektorean eta kultura-ekintzan izan den igoerari dagokio (bi kasuetan, 4 milioi eurotik gorako igoera egon da 2018an, 2016aren aldean). Udalerri horietan ere jaitsi da ondarean egindako gastua, ia % 10,0 (13,6 milioitik 12,3ra).

5.000 biztanletik 20.000 biztanlera arteko udalerrietan, gastuaren jaitsiera txikiagoa da ehunekotan, ondarean % 2,4koa izan baita jaitsiera. Bestalde, azpimarratu behar da zuzendaritza eta zerbitzu orokorretako gastua % 54,0 handitu dela, 2016ko 2,7 milioi eurotik 2018ko 4,2 milioira pasatu baita.

Azkenik, 5.000 biztanletik beherako udalerrietan, zuzendaritza eta zerbitzu orokorretan % 49,0 igo da gastua, 1,5 milioi eurotik 2,2 milioi eurora. Horrela, 2010etik erregistratutako beheranzko joera alderantzikatu da. Ondarearen, arteen eta industrien eta jaien eta herri-kulturaren kasuan, murrizketak izan dira gastu-aurrekontuan (% 10,0, % 6,6 eta % 14,5, hurrenez hurren).

# 3. EAEko gastu kontsolidatua

EAEko kulturako gastu publikoa hiru administrazio-mailen arteko transferentzien beste arazketa bat egin ondoren lortzen da. Beraz, EAEko administrazio publikoek egindako gastu kontsolidatuaren analisi finduena da, administrazio horien forma juridikoa edo kudeaketa-eredua edozein dela.


Kapitulu honetan, ikuspegi bikoitzetik aurkezten da prozesuaren emaitza: partidak entitate finantzatzaileetan edukizetik lortzen dena, hau da, jatorrian kontsolidatutako gastua deritzona, eta partidak entitate hartzaileetan edukizetik lortzen dena, hau da, helmugan kontsolidatutako gastua. Beste modu batean esanda, emaitza horiek EAEko administrazio publiko guztiek 2018an egin zuten gastuaren bi aurpegiak dira.

Bi ikuspegiak funtsezko datuak ematen dizkigute interpretazio osagarria egiteko: batetik, kulturako gastu publikoa finantzatzen duten iturrien profila, eta, bestetik, gastu horren azken emaitzaren ezaugarriak. Laburbilduz, kulturako aurrekontu publikoak nondik datozen, zertara bideratzen diren eta nola xahutzen diren.

## 3.1. Transferentzien fluxuak administrazio-mailen artean

Administrazio-mailen arteko transferentziak, gehien bat, udalez gaindiko administrazioetatik (Eusko Jaurlaritza eta foru-aldundiak) datoz udaletara eta udalen mendeko entitateetara; eta, neurri apalagoan, Eusko Jaurlaritzatik eta udaletatik foru-aldundien mendeko sozietate publiko eta fundazioetara. 2018an administrazio-mailen artean izandako transferentzien guztizko bolumena ondoren aurkezten den eskeman dago erregistratuta.

**15. irudia.** EAEko administrazioen arteko transferentziak. 2018 eta 2016 urtearekiko aldaketa.



Eskeman ikus daiteke Eusko Jaurlaritzak 12,5 milioi euro transferitu dituela beste administrazio-maila batzuetara 2018an, eta beraz, % 16,9 igo dela 2016. urtearekin alderatuta:

- ◆ 6,4 milioi euro udalei.
- ◆ 5,8 milioi euro udalen mendeko edo partaidetzako sozietate publiko eta fundazioei.
- ◆ 216,7 mila euro foru-aldundien mendeko edo partaidetzako sozietate publiko eta fundazioei.

Foru-aldundiek 3,0 milioi euro transferitu dituzte 2018an, guztira, beste administrazio batzuetara, hau da, 2016an baino % 22,7 gutxiago:

- ◆ 2,8 milioi euro udalei.
- ◆ 241,7 mila euro udalen mendeko edo partaidetzako sozietate publiko eta fundazioei.
- ◆ 5,4 mila euro Eusko Jaurlaritzaren mendeko edo partaidetzako sozietate publiko eta fundazioei.

Eta udalek 222,5 mila euro transferitu dituzte 2018an, 2016an baino % 22 gutxiago.



### 3.2. Jatorrian kontsolidatutako gastua


Jatorriko datuak kontsolidatzeko unean, entitate finantzatzailearekin lotuta eusten zaio transferentziari, eta horri esker jakin daiteke administrazio-maila bakoitzak EAEko gastu garbian izan duen garrantzia.



2018an, 423 milioi euro jotzen du kulturako gastu kontsolidatuak EAEn:

- ◆ Eusko Jaurlaritzak % 18,3 finantzatzen du, 77,5 milioi euroko gastua.
- ◆ Hiru aldundiek % 20,0, hau da, 84,8 milioi euro guztira.
- ◆ Eta azkenik, udalek egiten dute kultura-gasturik handiena (% 61,6), 260,8 milioi euro, alegia.

#### 16. irudia. Jatorrian kontsolidatutako kultura-gastua, administrazio-mailen arabera (eurotan). 2010-2018.




| Aldaketa  | Eusko Jaurlaritza | Foru-aldundiak | Udalak   | EAE, guztira |
|-----------|-------------------|----------------|----------|--------------|
| 2010-2018 | ▼ % 3,0           | ▼ % 11,5       | ▼ % 14,1 | ▼ % 11,7     |
| 2016-2018 | ▲ % 5,7           | ▼ % 2,4        | ▼ % 3,0  | ▼ % 1,4      |

2016. urtearekin alderatuta, ikus daiteke Eusko Jaurlaritzan bakarrik egin duela gora jatorrian kontsolidatutako gastuak, % 5,7 hain zuzen ere, hau da, 4,2 milioi euro. Hala ere, foru-aldundiek eta udalek % 3,0 inguruko beherakada izan dute gastuan (% 2,4 eta % 3,0, hurrenez hurren).

Datuak serieko hasierako zifrekin alderatuz gero, ikus daiteke gastuak beheranzko joera izan duela EAEko administrazio guztietan. Jatorrian egindako kulturako gastua % 11,7 jaitsi da 2010etik, hau da, 5,9 milioi euro gutxiago (479,1 milioi euroko gastua egin zen 2010ean, eta 423,0 milioi eurokoa 2018an). Eusko Jaurlaritzaren eta foru-aldundiak EAEko batez bestekoaren azpitik edo oso gertu daude (% 3,0 eta % 11,5 gutxiago, hurrenez hurren); eta udalak, berriz, jaitsieraren batez bestekoaren gainetik daude, eta 2018an % 14,1eko beherakada izan zuten.

**17. irudia.** Jatorrian kontsolidatutako kultura-gastuaren bilakaera (Oinarrizko indizea 100 = 2010), 2010-2018.



### 3.3. Helmugan kontsolidatutako gastua



EAE osoan kulturaren egindako gastu kontsolidatuaren emaitzak aurkeztuko ditugu apartatu honetan, betiere gastu hori egin duen entitatean mantenduz, eta hortaz, transferentziak eta dirulaguntzak jatorrian ezabatuz. Era horretan egindako kontsolidazio-prozesuak mailarik finduenean erakusten du gastuen kultura-helmugaren zehaztasuna eta banaketa ekonomikoa.


#### 3.3.1. Kultura-sektoreak

2018an, kulturako gastu publikoaren erdia baino gehiago bideratu da arte eta industrietara (% 53,9; 228,2 milioi euro). Ondarearen sektorea dator, arte eta industrien ondoren, gastuaren % 29,6rekin, 125,3 milioi euro, alegia. Zuzendaritza eta zerbitzu orokorretako gastuek guztizko gastuaren % 8,7 egin dute (36,9 milioi euro), eta jaiei eta herri-kulturari dagozkienek, berriz, % 7,7 (32,6 milioi euro).

2016. urtearekin alderatuta, kulturako gastu publikoa % 1,4 jaitsi da, eta beraz, 429,0 milioi eurotik 423,0 milioi eurora igaro da. Beherakada hori arte eta industrietan gertatu da (% 8,9 gutxiago), bai eta jaietan eta herri-kulturaren ere (% 0,8 gutxiago). Hala ere, igo egin da ondarean eta zuzendaritzan eta zerbitzu orokorretan egindako gastua (2018an, 2016an baino % 12,7 eta % 7,0 gehiago).

Serieko lehen emaitzekin alderatuz gero, ikus daiteke, 2010etik, EAEn helmugan kontsolidatutako gastua % 11,7 jaitsi dela: 56,1 milioi euro gutxiago, alegia. Ondarea da aurrekontuan murrizketa gehien izan duen sektorea: 2010etik 2018ra, ondarean egindako gastua 159 milioi eurotik 125,3 milioi eurora igaro da, eta beraz, murrizketa % 21,2 izan da (33,7 milioi gutxiago). Nabarmendu beharreko beste sektore bat jaiena eta herri-kulturarena da, epe horretan, gastua % 13,1 jaitsi baita, 37,5 milioi eurotik 32,6 milioi eurora. 2010etik 2018ra gora egin duen gastu bakarra zuzendaritzakoa eta zerbitzu orokorretakoa da, % 4,5 egin baitu gora.

### 18. irudia. Helmugan kontsolidatutako kulturako gastua, kultura-sektorearen arabera (eurotan). 2010-2018.



| Aldaketa  | Ondarea | Arteak eta industriak | Jaiak eta herri-kultura | Zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak | EAE, guztira |
|-----------|---------|-----------------------|-------------------------|-------------------------------------|--------------|
| 2010-2018 | ▼% 21,2 | ▼% 7,7                | ▼% 13,1                 | ▲% 4,5                              | ▼% 11,7      |
| 2016-2018 | ▲% 12,7 | ▼% 8,9                | ▼% 0,8                  | ▲% 7,0                              | ▼% 1,4       |

Sektoreak xehekiago aztertuta, kultura-ekintzak eta musikako azpisektoreak hartzen dute gastu-bolumenik handiena. 2018an, gastu osoaren % 20,0 (84,7 milioi euro) bideratu zen kultura-ekintzara, hau da, 2016an baino % 22,6 gutxiago, orduan 109,5 milioi euroko gastua egin baitzen kultura-ekintzan. 24,8 milioi euroko murrizketa hori da 2018an azpisektoreetan izandako murrizketarik handiena.

Bestalde, musikari dagokio helmugan kontsolidatutako gastuaren % 19,9 (84,0 milioi euro). 2016. urtearekin alderatuta, eta kultura-ekintzan ez bezala, musikaren azpisektorean egindako gastuak % 4,3 egin du gora, 3,4 milioi euro gehiago, alegia.

Gainerako azpisektoreei dagokienez, aipatzekoa da bakoitzak gastuaren % 5,0 eta % 15,0 artean metatzen duen multzo bat: museoak (% 12,6), liburutegiak (% 10,4), zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak (% 8,7), jaiak eta herri-kultura (% 7,7), antzerkia eta dantza (% 6,2) eta zinema eta ikus-entzunezkoak (% 5,5).


2016ko datuekin alderatuz gero, museoetan eta liburutegietan egindako gastuaren igoera nabarmentzen da, % 22,3 eta % 17,2, hurrenez hurren. Museoen kasuan, gastuaren aurrekontua 36 milioi eurotik 44 milioi eurora igaro da, eta liburutegien kasuan, 45,5 milioi eurotik 53,3 milioi eurora.

Gainerako azpisektoreak gastuaren % 5 ere ez dira: ondarea eta arkeologia (% 3,4), artxiboak (% 3,2), ikusizko arteak (% 1,4), literatura eta argitalpena (% 0,7) eta bertsolaritza (% 0,2).

2010etik aurrerako datuak aztertuz gero, beherakada handiak ikusten dira azpisektore batzuen aurrekontuan:


- ◆ Ondarea eta arkeologia % 70,6 jaitsi da 2010etik 2018ra, eta 49,0 milioi euroko aurrekontua izatetik 14,4 milioiko aurrekontua izatera pasatu da.
- ◆ Ikusizko arteak % 46,8 jaitsi dira, 11,2 milioi euroko gastua izatetik 5,9 milioikora pasatu baitira.
- ◆ Antzerkia eta dantza % 23,1 murriztu dira, 34,4 milioi euroko gastua izatetik 26,4 milioi euroko gastua izatera.
- ◆ Literatura eta argitalpena % 19,7 murriztu dira, eta gastua 3,5 milioi eurotik 2,8 milioi eurora murriztu da.

## 19. irudia. Helmugan kontsolidatutako kulturako gastua, kultura-esparruaren arabera (% eta eurotan), 2018.



2018an, biztanle bakoitzeko kultura-gastua 194,0 € izan zen (2016an baino 3,5 € gutxiago); kultura-esparruen arabera, kultura-ekintza (azpisektore horrek 38,9 € bideratzen ditu biztanle bakoitzeko) eta musika (38,5 €) nabarmentzen dira. Bestalde, ikusizko arteak, literatura eta argitalpena eta bertsolaritza dira biztanleko euro gutxien bideratzen dituzten hiru azpisektoreak (3 € baino gutxiago biztanleko).

**20. irudia.** Helmugan kontsolidatutako kultura-gastua biztanleko, kultura-esparruaren arabera (% eta eurotan). 2018.




Kultura-eremu bakoitzaren xehetasunei eta horietako bakoitzean egindako gastuaren izaera ekonomikoari dagokienez, emaitza hauek nabarmendu behar dira.

**3.3.1.1. Ondarea, museoak, artxiboak eta liburutegiak**

2018an, EAEko administrazio publikoek kantitate hauek bideratu zituzten:

- ◆ 53,3 milioi euro museoetara (EAEko kultura-gastuaren % 12,6; 20,9 euro biztanleko).
- ◆ 44,0 milioi euro liburutegietara (kultura-gastuaren % 10,4, hau da, 20,2 euro biztanleko).
- ◆ 14,4 milioi euro ondare eta arkeologiara (gastu osoaren % 3,4, hau da, 6,6 euro biztanleko).
- ◆ 13,6 milioi euro artxiboetara (gastu osoaren % 3,2, hau da, 6,2 euro biztanleko).

**21. irudia.** Museoetara bideratutako kultura-gastu helmugan kontsolidatua (kultura-gastu osoaren %). 2018.



Museoetara bideratutako gastua, batik bat, hiru kapitulu ekonomikotan banatzen da: ondasun eta zerbitzuetako gastu arrunta, % 40,3 (21 milioi euro); transferentzia arruntak, % 25,0 (13 milioi euro); eta langile-gastuak, % 21,8 (11 milioi euro).

Liburutegietara bideratutako gastuaren erdia baino gehiago langile-gastuei dagokie (24 milioi euro, % 55,4), eta ondoren datoz ondasunen eta zerbitzuen gastu arruntak (15 milioi euro, % 35,6). Inbertsio errealek 3 milioi euro bideratu dira (gastu osoaren % 8,5).

Ondarean eta Arkeologian banatuta dago gastua. Ondarean eta arkeologian egindako gastuaren % 40,0 hauetan kontzentratzen da: langile-gastuak (% 22,4, 3 milioi euro) eta ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak (% 20,2, 3 milioi euro). Gainerako % 60,0a kapital-transferentziei (% 21,6, 3 milioi), inbertsio errealei (% 818,6, 2,6 milioi) eta transferentzia arruntei (% 17,2, 2,4 milioi euro) dagokie.

Artxiiboetara bideratutako gastuaren ia erdia langile-gastuei dagokie (% 45,5, hau da, 6 milioi euro), % 24,9 inbertsio errealei (3,4 milioi) eta % 22,0 ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntei (3 milioi euro).

**22. irudia.** Kultura-gastu kontsolidatuaren banaketa, kapitulu ekonomikoaren arabera: EAE guztira, museoak, liburutegiak, ondarea eta arkeologia eta artxiboak (euroak eta %). (euroak eta %). **2018.**


| Kapitulu ekonomikoak | Gastua museoetan  |              |                      | Gastua liburutegietan |              |                      | Gastua ondare eta arkeologian |              |                      | Gastua artxiboetan |              |                      | Gastu osoa kulturaren |              |
|----------------------|-------------------|--------------|----------------------|-----------------------|--------------|----------------------|-------------------------------|--------------|----------------------|--------------------|--------------|----------------------|-----------------------|--------------|
|                      | €                 | %            | EAEko guztizkoaren % | €                     | %            | EAEko guztizkoaren % | €                             | %            | EAEko guztizkoaren % | €                  | %            | EAEko guztizkoaren % | €                     | %            |
| I                    | 11.648.355        | 21,8         | 7,7                  | 24.367.297            | 55,4         | 16,1                 | 3.230.241                     | 22,4         | 2,1                  | 6.198.917          | 45,5         | 4,1                  | 150.910.140           | 35,7         |
| II                   | 21.509.071        | 40,3         | 12,9                 | 15.632.946            | 35,6         | 9,4                  | 2.901.838                     | 20,2         | 1,7                  | 3.003.513          | 22,0         | 1,8                  | 166.741.472           | 39,4         |
| III                  | 47.508            | 0,1          | 34,9                 | 0                     | 0,0          | 0,0                  | 15                            | 0,0          | 0,0                  | 0                  | 0,0          | 0,0                  | 136.054               | 0,0          |
| IV                   | 13.352.367        | 25,0         | 22,8                 | 217.456               | 0,5          | 0,4                  | 2.478.476                     | 17,2         | 4,2                  | 956.973            | 7,0          | 1,6                  | 58.559.900            | 13,8         |
| VI                   | 5.274.088         | 9,9          | 14,1                 | 3.748.208             | 8,5          | 10,0                 | 2.677.613                     | 18,6         | 7,2                  | 3.394.036          | 24,9         | 9,1                  | 37.399.304            | 8,8          |
| VII                  | 406.000           | 0,8          | 6,0                  | 0                     | 0,0          | 0,0                  | 3.101.521                     | 21,6         | 46,0                 | 70.000             | 0,5          | 1,0                  | 6.743.277             | 1,6          |
| VIII                 | 998.879           | 1,9          | 40,9                 | 0                     | 0,0          | 0,0                  | 0                             | 0,0          | 0,0                  | 0                  | 0,0          | 0,0                  | 2.445.066             | 0,6          |
| IX                   | 95.433            | 0,2          | 100,0                | 0                     | 0,0          | 0,0                  | 0                             | 0,0          | 0,0                  | 0                  | 0,0          | 0,0                  | 95.433                | 0,0          |
| <b>GUZTIRA</b>       | <b>53.331.702</b> | <b>100,0</b> | <b>12,6</b>          | <b>43.965.907</b>     | <b>100,0</b> | <b>10,4</b>          | <b>14.389.703</b>             | <b>100,0</b> | <b>3,4</b>           | <b>13.623.439</b>  | <b>100,0</b> | <b>3,2</b>           | <b>423.030.646</b>    | <b>100,0</b> |

### 3.3.1.2. Musika, antzerkia eta dantza, ikusizko arteak eta bertsolaritza

2018an, EAEko administrazio publikoek kantitate hauek bideratu zituzten:

- ◆ 84,0 milioi euro musikaren sektorerara (EAEko kultura-gastu kontsolidatuaren % 19,9, hau da, 38,5 euro biztanleko).
- ◆ 26,4 milioi euro antzerkira (gastu osoaren % 6,2, hau da, 12,1 euro biztanleko).
- ◆ 5,9 milioi euro ikusizko arteetara (kulturako aurrekontu osoaren % 1,4, hau da, 2,7 € biztanleko).
- ◆ 932,3 mila euro bertsolaritzara (kulturako aurrekontuaren % 0,2, hau da, 0,2 euro biztanleko).

**23. irudia.** Kultura-gastu helmugan kontsolidatua, musikara, antzerki eta dantzara, ikusizko arteetara eta bertsolaritzara bideratua (kulturako gastu osoaren %). **2018.**



Gastuaren zatirik handiena, % 63,3, langile-gastuetara bideratu da (53 milioi euro); % 19,4, ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntetara (16 milioi); eta % 12,6, transferentzia arruntetara (10 milioi). Banaketa horren oinarrian, egitura egonkorre eutsi beharra dago (hala nola orkestrak eta musika-bandak), baita musika-eskolek osatzen duten musikako prestakuntza-zerbitzuen sare zabala ere.

Antzerkian eta dantzan egindako gastuaren erdia ondasun eta zerbitzuen gastu arruntari dagokio (% 51,6, hau da, 13 milioi euro). % 27,4 langile-gastuei dagokie (7 milioi) eta % 18,0 transferentzia arruntei (5 milioi). Gastuaren egitura ulertzeko, ezinbestekoa da antzoki publikoen sarea kontuan izatea, baita sektorerara bideratzen diren transferentziak ere.

Ikusizko arteetako gastu-banaketa hauetan zentratzen da: ondasun eta zerbitzuak (% 37,6, hau da, 2,2 milioi euro), transferentzia arruntak (% 33,6, 2 milioi euro) eta langile-gastuak (% 21,3, 1,2 milioi). Gainerako % 7,6a kapital-transferentzietan eta inbertsio errealetan biltzen da.

Bertsolaritzari dagokionez, gastuaren erdia baino gehiago transferentzia arruntetara dago bideratuta (% 54,6, hau da, 500 mila euro inguru); % 24,5, ondasun eta zerbitzuen gastu arruntetara (228 mila euro), eta % 14,5, kapital transferentzietara (135 mila euro).



**24. irudia.** Kultura-gastu kontsolidatuaren banaketa, kapitulu ekonomikoaren arabera: EAE guztira, musika, antzerkia eta dantza, ikusizko arteak eta bertsolaritza (euroak eta %). **2018.**


| Kapitulu ekonomikoak | Gastua musikan    |              |                      | Gastua antzerki eta dantzan |              |                      | Gastua ikusizko arteetan |              |                      | Gastua bertsolaritzan |              |                      | Gastu osoa kulturaren |              |
|----------------------|-------------------|--------------|----------------------|-----------------------------|--------------|----------------------|--------------------------|--------------|----------------------|-----------------------|--------------|----------------------|-----------------------|--------------|
|                      | €                 | %            | EAEko guztizkoaren % | €                           | %            | EAEko guztizkoaren % | €                        | %            | EAEko guztizkoaren % | €                     | %            | EAEko guztizkoaren % | €                     | %            |
| I                    | 53.177.125        | 63,3         | 35,2                 | 7.250.576                   | 27,4         | 4,8                  | 1.260.519                | 21,3         | 0,8                  | 59.889                | 6,4          | 0,0                  | 150.910.140           | 35,7         |
| II                   | 16.268.092        | 19,4         | 9,8                  | 13.621.096                  | 51,6         | 8,2                  | 2.227.725                | 37,6         | 1,3                  | 228.038               | 24,5         | 0,1                  | 166.741.472           | 39,4         |
| III                  | 2.665             | 0,0          | 2,0                  | 51.750                      | 0,2          | 38,0                 | 0                        | 0,0          | 0,0                  | 0                     | 0,0          | 0,0                  | 136.054               | 0,0          |
| IV                   | 10.605.278        | 12,6         | 18,1                 | 4.752.784                   | 18,0         | 8,1                  | 1.994.743                | 33,6         | 3,4                  | 508.589               | 54,6         | 0,9                  | 58.559.900            | 13,8         |
| VI                   | 3.284.186         | 3,9          | 8,8                  | 724.684                     | 2,7          | 1,9                  | 129.404                  | 2,2          | 0,3                  | 708                   | 0,1          | 0,0                  | 37.399.304            | 8,8          |
| VII                  | 122.000           | 0,1          | 1,8                  | 22.147                      | 0,1          | 0,3                  | 318.389                  | 5,4          | 4,7                  | 135.110               | 14,5         | 2,0                  | 6.743.277             | 1,6          |
| VIII                 | 569.136           | 0,7          | 23,3                 | 0                           | 0,0          | 0,0                  | 0                        | 0,0          | 0,0                  | 0                     | 0,0          | 0,0                  | 2.445.066             | 0,6          |
| IX                   | 0                 | 0,0          | 0,0                  | 0                           | 0,0          | 0,0                  | 0                        | 0,0          | 0,0                  | 0                     | 0,0          | 0,0                  | 95.433                | 0,0          |
| <b>GUZTIRA</b>       | <b>84.028.482</b> | <b>100,0</b> | <b>19,9</b>          | <b>26.423.038</b>           | <b>100,0</b> | <b>6,2</b>           | <b>5.930.780</b>         | <b>100,0</b> | <b>1,4</b>           | <b>932.335</b>        | <b>100,0</b> | <b>0,2</b>           | <b>423.030.646</b>    | <b>100,0</b> |

### 3.3.1.3. Zinema eta ikus-entzunezkoak eta literatura eta argitalpena

Zineman eta ikus-entzunezkoetan egindako inbertsioak 23,4 milioi euro jo du 2018an, hau da, gastu osoaren % 5,5 (10,7 euro biztanleko).

2,8 milioi euro bideratu dira literatura eta argitalpenera, aurrekontuaren % 0,7, eta biztanleko ratioa 1,3 euro da.

**25. irudia.** Kultura-gastu helmugan kontsolidatua, zinema eta ikus-entzunezkoetara eta literatura eta argitalpenera bideratua (kulturan egindako gastu osoaren %). **2018.**



Zineman eta ikus-entzunezkoetan egindako gastuaren % 42,8 ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntei dagokie (10 milioi euro), % 22,4 inbertsio errealei (5,2 milioi) eta % 16,4 langile-gastuei (3,8 milioi).

Literaturan eta argitalpenean egindako gastuaren % 70,6 sektorera bideratutako transferentzia arruntei dagokie (2 milioi euro); % 21,4, ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntei (600 mila euro), eta % 6,8, langile-gastuei (ia 200 mila euro).

**26. irudia.** Kultura-gastu kontsolidatuaren banaketa, kapitulu ekonomikoaren arabera: EAE guztira, zinema eta ikus-entzunezkoak eta literatura eta argitalpena (euroak eta %). **2018.**


| Kapitulu ekonomikoak | Gastua zinema eta ikus-entzunezkoetan |              |                      | Gastua literatura eta argitalpenean |              |                      | Gastu osoa kulturaren |              |
|----------------------|---------------------------------------|--------------|----------------------|-------------------------------------|--------------|----------------------|-----------------------|--------------|
|                      | €                                     | %            | EAEko guztizkoaren % | €                                   | %            | EAEko guztizkoaren % | €                     | %            |
| I                    | 3.829.576                             | 16,4         | 2,5                  | 192.891                             | 6,8          | 0,1                  | 150.910.140           | 35,7         |
| II                   | 9.991.107                             | 42,8         | 6,0                  | 602.651                             | 21,4         | 0,4                  | 166.741.472           | 39,4         |
| III                  | 29.988                                | 0,1          | 22,0                 | 0                                   | 0,0          | 0,0                  | 136.054               | 0,0          |
| IV                   | 2.015.815                             | 8,6          | 3,4                  | 1.992.525                           | 70,6         | 3,4                  | 58.559.900            | 13,8         |
| VI                   | 5.238.190                             | 22,4         | 14,0                 | 33.707                              | 1,2          | 0,1                  | 37.399.304            | 8,8          |
| VII                  | 2.254.552                             | 9,7          | 33,4                 | 0                                   | 0,0          | 0,0                  | 6.743.277             | 1,6          |
| VIII                 | 0                                     | 0,0          | 0,0                  | 0                                   | 0,0          | 0,0                  | 2.445.066             | 0,6          |
| IX                   | 0                                     | 0,0          | 0,0                  | 0                                   | 0,0          | 0,0                  | 95.433                | 0,0          |
| <b>GUZTIRA</b>       | <b>23.359.228</b>                     | <b>100,0</b> | <b>5,5</b>           | <b>2.821.774</b>                    | <b>100,0</b> | <b>0,7</b>           | <b>423.030.646</b>    | <b>100,0</b> |

**3.3.1.4. Kultura-ekintza eta jaiak eta herri-kultura**

EAEko administrazio publikoek 84,7 milioi euro bideratu zituzten Kultura-ekintzara 2018an (EAEko gastu kontsolidatuaren % 20,0), hots, 38,9 euro biztanleko.

Guztira 32,6 milioi euro bideratu ziren jaietara eta herri-kulturara, kulturako gastu osoaren % 7,7, hau da, 15,0 euro biztanle bakoitzeko.

**27. irudia.** Kultura-gastu helmugan kontsolidatua, kultura-ekintzara eta jai eta herri-kulturara bideratua (kultura-gastu osoaren %). **2018.**



Kultura-ekintzan egindako gastuaren % 50,8 ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntetara bideratu da (43 milioi euro); % 23,0, langile-gastuetara (19,4 milioi); % 16,8, transferentzia arruntetara (14,2 milioi), eta % 8,1, inbertsio errealetara (6,9 milioi). Kontuan izan behar da esparru horrek barnean hartzen dituela udalerrietako ekipamendu komunitarioetan eta soziokulturaletan egiten diren jarduera eta zerbitzu guztiak, baita kultura amateurraren babesak eta kultura-programazio transbertsala ere.

Jaietan eta herri-kulturan egindako gastuaren % 77,3 ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntei dagokie (25,2 milioi euro); gainerako gastuaren gehiengoa hauei dagokie: transferentzia arruntei (5,3 milioi euro, guztizkoaren % 16,4) eta langile-gastuei (1,8 milioi euro, % 5,7).


**28. irudia.** Kultura-gastu kontsolidatuaren banaketa, kapitulu ekonomikoaren arabera: EAE guztira, kultura-ekintza eta jaiak eta herri-kultura (euroak eta %). **2018.**

| Kapitulu ekonomikoak | Gastua kultura-ekintzan |              |                      | Gastua jaietan eta herri-kulturan |              |                      | Gastu osoa kulturalan |              |
|----------------------|-------------------------|--------------|----------------------|-----------------------------------|--------------|----------------------|-----------------------|--------------|
|                      | €                       | %            | EAEko guztizkoaren % | €                                 | %            | EAEko guztizkoaren % | €                     | %            |
| I                    | 19.446.081              | 23,0         | 12,9                 | 1.847.491                         | 5,7          | 1,2                  | 150.910.140           | 35,7         |
| II                   | 43.061.728              | 50,8         | 25,8                 | 25.235.279                        | 77,3         | 15,1                 | 166.741.472           | 39,4         |
| III                  | 1.655                   | 0,0          | 1,2                  | 0                                 | 0,0          | 0,0                  | 136.054               | 0,0          |
| IV                   | 14.239.719              | 16,8         | 24,3                 | 5.347.074                         | 16,4         | 9,1                  | 58.559.900            | 13,8         |
| VI                   | 6.900.363               | 8,1          | 18,5                 | 167.627                           | 0,5          | 0,4                  | 37.399.304            | 8,8          |
| VII                  | 193.841                 | 0,2          | 2,9                  | 40.800                            | 0,1          | 0,6                  | 6.743.277             | 1,6          |
| VIII                 | 874.392                 | 1,0          | 35,8                 | 0                                 | 0,0          | 0,0                  | 2.445.066             | 0,6          |
| IX                   | 0                       | 0,0          | 0,0                  | 0                                 | 0,0          | 0,0                  | 95.433                | 0,0          |
| <b>GUZTIRA</b>       | <b>84.717.780</b>       | <b>100,0</b> | <b>20,0</b>          | <b>32.638.271</b>                 | <b>100,0</b> | <b>7,7</b>           | <b>423.030.646</b>    | <b>100,0</b> |


# 4. Langile-gastuak eta kultura-enplegua

Eusko Jaurlaritzak 4,2 milioi euro bideratu ditu, 2018an, langile-gastuetara, guztia kultura-jarduerara; bestalde, foru-aldundiak 15,8 milioi euro bideratu dituzte, batik bat kultura-jarduerara (% 92,4). Udalak aurrekontu handiagoa dute kapitulu honetarako (51,1 milioi euro); % 6,2, laguntzarako langileei dago zuzenduta, eta % 93,8, kultura-jarduerekin lotutako langileei. Eta aurrekontu-bolumen handienarekin, erakunde autonomoak, sozietate publikoak eta fundazioak ditugu, 71,8 milioi euroekin (% 95,8 kultura-jardueretako langileei dagokienez).

## 29. irudia. Administrazio-maila bakoitzari dagozkion langile-gastuak, langile motaren arabera. 2018.



## 30. irudia. Langile-gastuen banaketa, langile mota bakoitzaren administrazio-mailaren arabera (%). 2018.




Ikusten denez, 2018an, erakunde autonomoek, sozietate publikoek eta fundazioek aurrekontu handiagoa izan dute langileei dagokienez. Kultura-jardueretan diharduten langileei erreparatuz gero, administrazio-erakunde horien gastua nabarmendu behar da, % 50,2koa. Udalen kasuan, % 35,7; foru-aldundietan, % 11,1; eta Eusko Jaurlaritzan, % 3,0.

Laguntza-langileei dagokienez, gastuaren banaketa aldatu egiten da; kasu honetan, udalek egin dute gastu handiena (% 43,5), eta erakunde autonomoak (% 39,9) eta foru-aldundiak (% 16,6) ditugu haien ondoren.

Datu ekonomikoez gain, EAEko administrazio publikoaren kultura-enplegua aztertzen da. Alde batetik, I. kapituluaren bidez finantzaturako erakunde-enplegua aztertu da, eta beste batetik, barruan sartu da, baita ere, beste kapitulu batzuen bidez finantzaturako enplegua, entitatearen funtzionamendurako azpikontrataturak (azpikontrataturako enplegua, alegia).


2018an, EAEko administrazio publikoak 3.706 langile zituen; horietatik % 78,4 enplegu propioari zegozkion (2.906,1 lanpostu) eta % 21,6 azpikontrataturako enpleguari (799,9 lanpostu). Bi enplegu mota horiek eusten diote lehen estatistikatik hautemandako goranzko joerari.

### 31. irudia. Kultura-arloko enplegu publikoa (urtean urteko lanpostuak). 2010-2018.




Enplegu publiko propioaren zatirik handiena erakunde autonomo, fundazio eta sozietate publikoek (1.431,9 lanpostu) eta udalei (1.115,4 lanpostu) atxikita dago; horrek esan nahi du kulturako enplegu publiko propio guztiaren % 87,7 dela (% 49,3 eta % 38,4, hurrenez hurren). Foru-aldundiek % 9,7 (282,0 lanpostu) enplegatzen dute, eta Eusko Jaurlaritzak gainerako % 2,6a (76,8). Kulturako enplegu propio guztiaren % 90,3 kultura-kudeaketa eta -jarduerako langileei dagokie (2.625,1) eta % 9,7, laguntzarako langileei (281,0).

**32. irudia.** Kulturako enplegu publiko propioa entitate motaren arabera (urtean urteko lanpostuak), 2018.




**33. irudia.** Kulturako enplegu publiko propioa, entitate motaren eta lanbide-eginkizunaren arabera (urtean urteko lanpostuak), 2018.



Kulturako enplegu publiko propioaren % 50,0 baino gehiago emakumeek betetzen dute (1.630,0 lanpostu, gizonek betetzen dituzten 1.276,1 lanpostuen aldean). EAEko administrazio guztietan dago joera hori, are neurri handiagoan foru-aldundietan eta udaletan, eta ia % 60,0ra iristen da emakumeen lanpostuetan.

**34. irudia.** Kulturako enplegu publiko propioa, sexuaren eta entitate motaren arabera (urtean urteko lanpostuak). **2018.**




Enplegu propioan, 10 lanpostutik 9 kudeaketa eta jarduera kulturaleko funtzio profesionalekin lotuta daude (2.625,1 langile, % 90,3). Enplegu mota horretan, teknikariak gailentzen dira (% 63,5, hau da, 1.665,8 langile), eta gero, kudeaketan eta administrazioan lan egiten dutenak (kudeaketako eta jarduera kulturaleko lanpostu guztien % 29,6, hots, 778,0 langile).

Egindako lan moten azterketan genero-ikuspegia txertatuz gero, ikusiko dugu emakumeek profil teknikoak (urtean urteko 882,5 lanposturen % 53,0) eta kudeaketarekin eta administrazioarekin lotutako lanak (518,7 lanposturen % 66,7) betetzen dituztela.

Zuzendaritza-postuetan gizon gehiago dago emakume baino, baina aldea txikia da (% 52,5 eta % 47,5, hurrenez hurren).

Laguntza-lanpostuei dagokienez, emakumeek garbiketa-lanetan duten pisu erlatiboa nabarmentzen da (% 83,6). Gizonek betetzen dituzten lanpostuen artean, mantentze-lanetako lanpostuak gailentzen dira (% 88,2).


**35. irudia.** Kultura-enplegu publiko propioa, sexuaren eta lanbide-funtzioaren arabera (%). **2018.**





Azpiktratatutako enpleguari dagokionez, nabarmendu behar da, funtzio profesional nagusiei dagokienez, enpleguaren ezaugarriak ez datozela bat enplegu propioarekin. Arestian ikusi dugun moduan, 10 enplegu propioetik 9 kudeaketari eta jarduera kulturei dagozkie; bestalde, azpiktratatutako enpleguan 10etik 5 bideratzen dira lanpostu-profil horretara (% 48,4) eta 10etik 5 laguntza-langileetara (% 51,6).

**36. irudia.** Kulturako enplegu publiko azpiktratatua, entitate motaren eta lanbide-eginkizunaren arabera (urtean urteko lanpostuak). 2018.



# 5. Komunikabideak


2018an, 150,0 milioi euro bideratu dira komunikabideetara; horrenbestez, jaitsiera txiki bat izan da 2016. urtearekin alderatuta (151,9 milioi euro); urte horretan gora egin zuen gastuak, lau edizioz jarraian beherakadak izan ostean. Seriearen hasieratik, komunikabideen gastua % 16 jaitsi da.

Eusko Jaurlaritzak 2018an komunikabideetara bideratu duen gastua 125,8 milioi eurokoa izan da, 2016an baino % 0,8 gehiago. Kantitate horren zatirik handiena (% 96,9) transferentzia arruntei dagokie, 122 milioi euro. Euskal Irrati Telebista SARi bideratutako zenbatekoa transferentzia-bolumen horren ondoren dago.

2018an, foru-aldundiek nabarmen handitu dute komunikabideetara bideratutako transferentzia arrunten zenbatekoa (2,4 milioi euro). Horrenbestez, 2016an % 339 handitu da komunikabideetan egin duten gastua.

Azkenik, udaletan ere milioi bat eurotik 3 milioi eurora handitu da komunikabideetan egindako gastua, aurreko ekitaldietako joera aldatuz.

## 37. irudia. Komunikabideetara bideratutako gastu kontsolidatua. 2008-2018.



| Aldaketa  | EAE, guztira |
|-----------|--------------|
| 2008-2018 | ▼% 16,3      |
| 2016-2018 | ▼% 1,2       |


# 6. Laburpen gisa

## ◆ Gastu-muga berri baten aurrean gaude

Aurreko edizioan (2016) joera-aldaketa baten aurrean egon gintezkeela aurreikusi arren, eta serie historikoaren unerik baxuenarekin alderatuta (2012) igoera esanguratsua izan arren, edizio honetan oso beherakada txikia erregistratu da. Ez da finkatu joera positiboaren aldaketa. Horrela, 2018an likidatutako gastua 558,5 milioi euro izan da. Zifra horri kontsolidazio-prozesua aplikatu eta araztu ondoren, 423 milioi eurotan geratzen zaigu.

Portaera administrazio-mailaren arabera aztertzean, ikus dezakegu foru-aldundietan eta udaletan jaitsi dela zertxobait (% 2,5 inguru, 2016. urterekin alderatuta). EAeko kultura-gastu publikoa (2008-2010 aldiko parametroak oinarritzat hartuta) berreskuratzeko aukera gero eta urrunago dago. Kulturako gastu garbiaren muga berria 420-30 milioi euro ingurukoa da. Kontuan hartu behar da pandemiak salbuespenezko egoera bat ekarri duela, azterketa hau prestatzeko aldiarekin bat etorri dena. Horrenbestez, egoera berri hori estatistikaren hurrengo edizioen datuetan islatuko da, eta pandemiaren aurreko egoera izan beharko dugu kontuan, erreferentzia gisa, kulturako aurrekontu publikoetan izan duen eragina neurtzean.

### 38. irudia. Kultura-gastu kontsolidatua (milioi eurotan). 2010-2018.




## ◆ Kulturak gero eta pisu txikiagoa du guztizko aurrekontuetan

2018an, udalen kultura-gastuak guztizko gastuaren % 8,1 jo zuen. Kulturagastuaren pisu erlatiboa, guztizko aurrekontuarekin alderatuta, % 2,9 izan zen foru-aldundietan, eta % 0,6 Eusko Jaurlaritzan.

Kulturak administrazio-maila desberdinetan duen pisu erlatiboa aztertuz gero, fenomeno komun bat ikusten da: gastu orokorren aurrekontuetako aldaketek ez dute proportziozko islarik kulturako aurrekontuetan, ez positiboki ez negatiboki. Aurrekontuak handitzen direnean, kulturako igoera gastu osoaren igoera baino txikiagoa da, eta aurrekontuak txikitzen direnean, kulturako murrizketa gastu osoaren murrizketa baino handiagoa da. Horrek berretsi egiten du gastu publikoaren muga erdietsi dugulako ustea; izan ere, zaila izango da gainditzen, ezohiko inbertsio edo jarduketa puntualetan salbu.

**39. irudia.** Kulturako gastu likidatuaren eta guztizko aurrekontuen bilakaera (Oinarrizko indizea 100 = 2008), eta kultura-ahalegina (%), administrazio-mailaren arabera. **2008-2018.**



#### ◆ **Gastu arruntaren azterketak erakunde bakoitzaren politika eta prestazio motak islatzen ditu**

Administrazio publikoek aurrekontuko 10 eurotik 8-9 euro bideratzen dituzte gastu arruntera. Eusko Jaurlaritzak gastu arruntaren % 82 bideratzen du transferentzia arruntetara, 56,1 milioi euro, alegia; foru-aldundiek, berriz, 64,6 milioi euroko gastu arruntaren % 50 baino gehiago; eta udalek 223,3 milioi euroko gastu arruntaren % 42,7.

Kontuan izan behar da transferentzia arruntan pisu handi horretan sartzen direla haien mendeko edo partaidetzako erakunde autonomo, sozietate publiko eta fundazioei transferitzen zaizkien zenbatekoak. Beraz, administrazio-maila horietako bakoitzak neurri handiagoan edo txikiagoan esku hartzen duen erakundeetara daude bideratuta partida horiek. Transferentzia mota horiek transferentzien % 80 dira Jaurlaritzaren eta udalen kasuan, eta % 64,5 foru-aldundien kasuan. Gainerako bolumena kultura-ehunari zuzendutakoa da: 9 eta 10 milioi artean Jaurlaritzak eta foru-aldundiek, eta 12 milioi inguru udalek.

Langile-gastuak eta ondasun eta zerbitzuetako gastuak dira udalen gastuen parte handiena (% 24,4 eta % 32,9, hurrenez hurren), eta garrantzitsuena erakunde autonomoetan, sozietate publikoetan eta fundazioetan (% 48,8 eta % 49,8, hurrenez hurren).

Hala, udalek eta erakunde autonomoek kultura-zerbitzuak ematera bideratzen dituzte beren baliabide arruntak, eta horretarako, langileak eta gastuak behar dituzte ekipamenduetan eta kontratazioetan. Bestalde, aldundiek eta, neurri handiagoan, Jaurlaritzak lehentasuna ematen diete batik batik partaidetza duten beste erakunde batzuetara eta kultura-ehunera bideratutako transferentziei.

#### ◆ **Alderdi publikoaren pisua sektoreetan**

Sektore bakoitzean inbertitzen den euro-bolumenaren diferentziei erreparatzeaz gain, izaera ekonomikoaren banaketa aztertzeak datuetatik haratago ikusten laguntzen digu. Ez da gauza bera kultura-zerbitzuak emateko beharrezkoak diren egitura egonkorak izatea (udal antzoki edo kultura-zentroen sarea, adibidez) edo zuzeneko esku-hartze publikorik ez duten sektoreei zuzenean laguntzea, hala nola literatura, bertsolaritza edo ikusizko arteak. Sektore batzuetan, langile espezializatuak behar dira zerbitzuen buru, hala nola liburutegietan, musika-eskoletan edo orkestretan. Horregatik, sektoreek inbertsio publikoari dagokionez duten kokapenaren rankingez haratago, hau begiratu behar da: esku-hartze publikoa non den funtsezkoa, eta esku-hartze hori nolakoa den. Komunikabideak horren adibide paradigmaticoa dira. Sektore horretan, irrati-telebista publiko bat egonik, horietara bideratutako gastua inbertsio publikoaren bolumen handiena duten sektoreen oso gainetik dago.

EAEn bi sektorek biltzen dute kulturaren egindako gastuaren % 40: kultura-ekintzak eta musikak. Udal-zerbitzu soziokulturalak, programazio transbertsala, kultura amateurra eta musikarekin eta orkestrekin lotutako arautu gabeko prestakuntza-sarea inbertsio horren oinarrian daude (guztira, 160 milioi euro inguru).

Museoen eta liburutegien zerbitzuek osatzen dute kultura-gastu osoaren % 20 inguru. Museoek, oso sare zabala izanik (horien artean daude herrialdeko erreferentziako ekipamendu batzuk), 53 milioi euroko gastu publikoa sortzen dute urtean. Liburutegi-sareak —lurraldean kultura-zerbitzu gehien eskaintzen dituen— 43 milioi euro inguru behar ditu.

Gastu osoaren % 5 eta 7 artean askotariko esparruak eta sektoreak daude, hala nola jaiak eta herri-kultura, arte eszenikoak (antzerkia eta dantza) eta zinema eta ikus-entzunezkoak. Hasteko, jaiak (32 milioi euro) tokiko kultura-gastuaren zati handi bat dira. Antzerkia eta dantza (26 milioi) eta zinema eta ikus-entzunezkoak (23 milioi) politika publikoen aldetik laguntza handia jasotzen duten sektoreak dira.

Memoriarekin lotutako zerbitzuek eta erakundeek, hala nola ondareak eta arkeologiak eta artxiboek, EAEko kultura-gastu osoaren % 6 inguru osatzen dute.

Bestalde, ikusizko arteak, literatura eta bertsolaritza dira finantzaketa publiko gutxien jasotzen duten sektoreak.

#### ◆ **Enplegu publikoaren gorakada eta emakumeen gehiengoa**

Enplegu publikoak gora egiten jarraitzen du. 2018an, EAEko administrazio publikoak 3.706 langile zituen; horietatik % 78,4 enplegu propioari zegozkion (2.906,1 lanpostu) eta % 21,6 azpikontratutako enpleguari (799,9 lanpostu).


Kulturako enplegu publiko propioaren % 50,0 baino gehiago emakumeek betetzen dute (1.630,0 lanpostu, gizonak betetzen dituzten 1.276,1 lanpostuen aldean). Joera hori bat dator EAEko administrazio guztietan, baina foru-aldundien eta udalen kasuan, proportzioa handiagoa da: lanpostuen ia % 60,0 emakumeek betetzen dituzte. Funtzio profesionalari dagokionez, termino absolutuetan, lanpostu teknikoak (467,7 lanpostu) eta kudeaketa- eta administrazio-lanpostuak (345,9 lanpostu) betetzen dituzte batik bat. Era berean, azpimarratu behar da zuzendaritza-postuetan aldea ez dela horren esanguratsua, emakumeen presentzia gizonena baino txikiagoa izan arren.

# ERANSKINA. Azterketaren metodologia

## 1. Aztertutako kontzeptuak

Azterlan hau ez da mugatu kultura-sailek eta -arloek kudeatutako aurrekontuarekin lotutako begirada espezifikora; aitzitik, sail horiek kudeatzen ez dituzten baina azterlan honetan kultura-gastutzat hartu diren aurrekontu-partidak ere bildu ditu. Informazio horretatik abiatuta, honako kontzeptu hauen arabera sailkatu da gastua.

### Kultura-helmuga: esparruen deskribapena



#### Jaiak eta Herri-kultura

Udalerrietako herri-jaiak eta zaindarien jaiak ospatzeko jarduerak eta emanaldiak, baita herri-kulturarekin eta kultura tradizionalarekin lotutako emanaldiak eta jarduerak ere (jaietan sartzen diren gastuei kulturako gastu iritziko zaie)

#### Zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak


Kulturako azpisektore jakin bati egotzi ezin dakizkiokeen kultura-arloko funtzionamendu-gastu orokorrak (adibidez, kultura teknikari baten langile-gastuak)

#### Komunikabideak

Komunikabide publikoei, pribatuei eta sozialei laguntzea eta horiek finantzatzea.

## Gastuaren izaera ekonomikoa: aztertutako partidak

Azterketa honetarako, aurrekontu publikoetako gastuaren sailkapen ekonomikoa erabili da. Honako epigrafe hauek biltzen ditu:





## Kultura-enplegua

Kulturan enplegatutako langileei buruzko informazioa biltzen da, honako hauek bereizita:

|  |   |   |
|--|---|---|
| <b>Enplegu mota</b>                    | <b>Propioa</b><br>Entitatearen enplegua, I. kapituluaren bitartez finantzatua   | <b>Azpiktratatua</b><br>Entitatearen funtzionamendurako azpiktratatutako langileak, II. eta IV. kapituluaren bitartez finantzatuak, ekipamendu eta kultura-zerbitzu propioekin lotura dutenak               |
| <b>Lanbide-profila edo -eginkizuna</b> | <b>Kultura-kudeaketarekin eta -jarduerarekin lotutako langileak</b><br>Kultura-arloko langileak: zuzendariak, teknikariak eta kudeaketa eta administrazioko langileak (zuzendarien profilaren barruan sartzen dira kargu politiko liberatuak ere, I. kapituluaren bitartez ordaintzen bazaie) | <b>Laguntza-langileak eta zeharkakoak</b><br>Kultura alorretik kudeatutako aurrekontu-partidek finantzatutako laguntza-langileak eta zeharkakoak: garbiketa, mantentze-lanetako teknikariak, segurtasuna... |

## 2. Gastua kontsolidatzeko prozesua

Azterlan honetan bildu eta eskaintzen den informazioa 2018ko aurrekontu likidatutik atera da, aztertutako erakunde publikoen obligazio aitortuen fasetik. Lehen informazio-maila horri gastu likidatu deritzo, eta aukera ematen digu azterketa-unibertsoa osatzen duten entitateek kulturara bideratu zuten gastu «gordina» zein den jakiteko.


Informazio horretatik abiatuta egin da gastuaren kontsolidazioa. Arazketa-prozesu horren bitartez, azterlanean parte hartu duten erakundeen arteko transferentzia ekonomikoetatik eratorritako kontabilitate bikoitza neutralizatzen da (gastu eta diru-sarreraren IV. eta VII. kapituluak). Horri esker, kulturan egindako gastu «garbiari» buruzko datuak eskaintzen ditu azterlanak. Txostenean, kontsolidazio-prozesuaren ondoren lortutako gastuari kultura-gastu deritzo.

EAEko kulturako gastu publikoaren ikuspuntu oso eta globala emateko helburuarekin, kontsolidazio-prozesu bikoitza eraman da aurrera:

### Kontsolidazioa administrazio-mailen arabera

Eusko Jaurlaritzaren, foru-aldundien eta udalen gastuari buruzko datuak edukitzeko xedearekin, horietako bakoitzaren mendeko erakunde autonomoen, sozietate publikoen eta fundazioen kontsolidazio-prozesu bat egin da.

Ondoren aurkezten dugu finkatzea administrazio-mailen arabera egiteko jarraitu den eskema.



Parte hartu duen administrazio publiko bakoitzaren kontsolidazio % = administrazio publikoak egindako transferentziak / juridikoki parte hartzen duten administrazio publikoen transferentzia guztiak

## EAEko administrazioen arteko kontsolidazioa

Eusko Jaurlaritzaren, foru-aldundien eta udalen arteko transferentzien identifikaziotik abiatuta. Emaitzek informazioa ematen dute EAEko administrazio publikoen kulturako gastu kontsolidatuari buruz, jatorrian eta helmugan.

- ◆ **Kontsolidazioa jatorrian:** kontsolidazio-mota horrek partiden jatorria erakusten du. Finantzatzen duen erakundeari lotuta jarraitzen du transferentziak, eta transferentzia jasotzen duen erakundeari kentzen zaio zenbateko bikoiztua.



- ◆ **Kontsolidazioa helmugan:** kontsolidazio-mota horrek transferentzien helmuga erakusten du. Jasotzen duen erakundeari lotuta jarraitzen du transferentziak, eta transferentzia finantzatzen duen erakundeari kentzen zaio zenbateko bikoiztua.



Jarraitu den planteamendu metodologikoaren azken helburua da sektore publikoaren erretratu zehatz eta oso bat ematea hiru administrazio-mailetarako eta EAE osorako.



[www.euskadi.eus/kulturabehatokia](http://www.euskadi.eus/kulturabehatokia)



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA